

# gaz-teak



Doako alea

316 Zb.  
www.getxo.eus

>> 2017ko iraila



## Nabarmen <sup>tzekoak</sup>

- > GetxoExpress film laburren jaialdia itzuliko da, 2.100€ banatzeko saritan
- > I. Booktuberboom Lehiaketa martxan
- > Aisialdiko begirale ikastaroa euskaraz



## Aisialdiko begirale ikastaroa euskaraz

Bizarra Lepoan herriko euskara Elkarteak eta Bizkaiko Urtxintxa Eskolak aisialdiko begirale ikastaroa eskainiko dute. Ikastaroa aurtengo urritik datorren maiatzera bitarteko zenbait asteburutan egingo da. Guztira 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko egingo dira.

Ikastaroa euskaraz izango da eta parte hartzeko baldintza bakarra 18 urte beteta izatea da. Prezioa 450€koa da. Eta, bere antolatzaileen esanetan, "lagun berriak egin eta esperientziak bizitzeko" aukera da ikastaroa. Izena emateko epea irailaren 18tik 29ra izango da eta bankuko abonarea, NANaren fotokopia eta argazki bat eraman beharko dira, honako bulego honetara: Martikoena kalea 16, 2.solairua - 4.bulegoa / Algorta.

Informazio gehiagorako sartu [www.bizarralepoan.eus](http://www.bizarralepoan.eus) webgunean edo deitu 94.491.03.87 telefonora.

## BEKAK SARIAK

\* **Faro programa unibertsitarioentzat**, Hezkuntza Ministerioak sustatu eta diruz lagundutakoa, estatuko unibertsitate guztietako azken ikasturteetako ikasleen mugikortasuna bultzatzeko, 30 urtez azpikoena. Trebakuntza-praktikak egingo dira Europa, Estatu Batuak eta Kanadan dauden enpresetan eta enpresa espainiar edo Asia eta Ozeaniako multinazionalen. Egonaldia hasteko azkeneko epea 2017ko abenduaren 31 da, eta iraupena 5-6 hilabete artekoa. Argibide gehiago: [www.im-juve.es/convocatorias/becas/programa-faro-2015-2017-para-universitarios](http://www.im-juve.es/convocatorias/becas/programa-faro-2015-2017-para-universitarios).

\* **Unibertsitate ikasketak eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka** 2017-2018 ikasturterako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak deituta. Eskaera egiteko azken eguna aurtengo abenduaren 31 izango da (EAEko zentroetan matrikulatutako pertsonentzat urriaren 2an amaituko da). Argibide gehiago 2017-06-30eko 124. EHAAn. Harremanetarako: Gran Vía, 85 Bilbo. Tel.: 012.

\* **XXVII. "Portugaletre Uri Urena" ipuin lehiaketa**, Portugaleteko Udalak deituta, 14 eta 29 urte arteko pertsonentzat. Lehiaketaren sari nagusia: 1.500€; A kategoria (18-29 urte): sari nagusia 1.000€, bigarrena 600€; akzesita saririk gabeko hizkuntza batean idatziriko ipuin onenari: 250€. B kategoria (14-17 urte), sari nagusia 600€, bigarrena 300€; akzesita saririk gabeko hizkuntza batean idatziriko ipuin onenari: 100€. Lanak aurkezteko epea: 2017/10/11, Portugaleteko Udaletxean bertan. Formatu digitalekoak [educacion@portugaletre.org](mailto:educacion@portugaletre.org).

## Gaztelekuaren programazioa

### Iraila

**Hilak 6, asteazkena:** TAILERRA: UR PUXIKEN GUDA

**Hilak 7, osteguna:** TOPAKETA

**Hilak 9, larunbata:** TXAPELKETA: FUTBOLINA

**Hilak 14, osteguna:** TAILERRA: MAITASUN ERROMANTIKOIA DESMITIFIKATZEN

**Hilak 16, larunbata:** EKINTZA: MUNDUKO ARROZAK GETXON

**Hilak 20, asteazkena:** MASTERCHEF: HOT DOG

**Hilak 23, larunbata:** EKINTZA: GAZTELEKUA KALEAN: TALOA

**Hilak 28, osteguna:** MASTERCHEF: IRABIAKIAK

# GetxoExpress film laburren jaialdia itzuliko da, 2.100€ banatzeko saritan

Urriaren 20tik 22ra, GetxoExpress-en bigarren aldia hartuko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak, Getxoko film laburren Express Zinemako jaialdia. Lehenengo lehiaketak arrakasta handia izan zuen -parte hartzaileen leku guztiak okupatu ziren, eta proiektzioen galak eta sari banaketak harrera bikaina izan zuten-. Horren ondorioz aurtengoan ere bueltatuko da GetxoExpress, udalerriko kultur eta arte jarduerak osatzeko helburuz, jaialdi berezi eta berritzaile bat antolatuta. Jaialdia urriaren 20an hasiko da, 18:00etan, Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areetan), parte hartzaile guztiei filmaren gaia azalduz. Une horretatik aurrera, 25 taldeek 42 ordu izango dituzte film labur

bat asmatu, grabatu eta ekoizteko. Proiektuak leku berean emango dira, 22an, igandea, 11:00etatik 12:00etara.

Film labur onenak 1.000 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 800 eurokoa. Era berean, publikoak hautatutako saria emango da, 300 eurokoa. Sari banaketa ekitaldia Andrés Isasi Musika Eskolan bertan egingo da, parte hartzen duten film laburren proiektzioa amaitu eta berehala. Ekitaldia azken egunean izango da, 18:00etan.

Izena emateko epea irailaren 11n irekiko da, jaialdiaren orrialde bereziaren bidez, [www.getxoexpress.com](http://www.getxoexpress.com), eta urriaren 13an amaituko da, edo parte hartzen duten taldeen kupoa bukatzen denean.



Informazio gehiago: [www.getxoexpress.com](http://www.getxoexpress.com); [www.facebook.com/getxoexpress](https://www.facebook.com/getxoexpress); @Getxo Express; e-maila: [info@getxoexpress.com](mailto:info@getxoexpress.com).



## I. Booktuberboom Lehiaketa martxan

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak sortutako egitasmoa da Booktuberboom, 14 eta 18 urte bitarteko gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko. Euskarazko booktuber komunitate bat sortzen joateko I. BOOKTUBER LEHIAKETA egingo da 2017an, Euskadiko Liburutegi Sarearen bidez. Parte hartzeko beharrezkoa izango da Liburutegi Sareko liburutegiren bateko bazkide bartzela izatea. Parte hartzaileek haien gustuko liburu bat aukeratu eta irakurri behar dute; ondoren kamera, mugikor edo tablet

baten bidez, bideo labur bat grabatu behar dute liburu hori gomendatzeko. Azkenik, nork bere Youtube kanalean, bere herriko liburutegikoan edo bere ikastetxeko kanalean argitaratu beharko du. Parte hartzeko bete egin behar da *Booktuberboom* blogeko parte-hartze orria. Bertan jarri beharko da bideoak youtuben duen URL helbidea. Parte hartzeko epea urriaren 24an amaituko da. Lanak euskaraz egin behar dira eta bideoak *Creative Commons* lizentziarekin argitaratu dira. Argibideak [www.booktuberboom.wordpress.com](http://www.booktuberboom.wordpress.com) helbidean.

## Irailaren hondarrean aurkeztu ahal da eskaera informazio panelen beka jasotzeko

Irailaren 25etik 29ra bitartean aurkeztu beharko da Gazteria Zerbitzuak informazio panelak arduratzeko ematen duen bekaren eskaera, 2017/2018 ikasturteari dagokiona. Getxoko hainbat tokitan daude jarrita informazio-panel horiek. Aurten bekaren zenbatekoak, gainera, igoera txiki bat izan du: beka jasotzeko hautatutako pertsona edo pertsonak paneleko informazioa beti egu-

neratuta egoteaz arduratu behar dira eta, ordainean, 490 eta 690 € bitarteko beka bat jasoko du urte osorako.

Panelak udalerriko gazteentzat interesgarria izan daitekeen informazioa erakusten du, gaika antolatuta. Honako leku hauetan daude jarrita panelak: IES Julio Caro Baroja BHI, IES Aixerrota BHI, CPEIPS Azkorri, IEFPS Fadura GLHBI, CPEIPS San Nikolas

Ikastola, Fadura eta Andra Mari-ko kiroldegiak eta Algortako Kultur Etxea.

Deialdiaren oinarriak eta argibide guztiak eskuratu ditzakezue [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) web orritik behera kargatuz, Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako Etorbidea, 98; tel.: 944.660.353) edo edozein Herriarrentzako Arreta Bulegora ere jo dezakezue.

## Tailer eta ikastaroak: urritik urtarrilera

Ikastaroa/Tailerra	Egunak	Adina	Ordutegia	Hizkuntza	Izenematea	Tokia
Zeinu Hizkuntza ikastaroa	Urriaren 16, 17, 18, 19, 23, 24, 25 eta 30ean	18-30	19:00-21:00h	Gaztelaniaz	Urriaren 15era arte	Villamonteko Kultur Etxea
Henna eta Mandala Tatuaje tailerra	Azaroaren 18an	11-17	17:30-19:30h	Euskaraz	Azaroaren 17ra arte	Gaugun Gazteleku
Lehen Sorospenak	Abenduaren 2an eta 16an	18-30	10:00-14:00h	Euskaraz	Abenduaren 1era arte	Gaugun Gazteleku
Gozogintza tailerra	Abenduaren 27an	11-17	17:30-19:30h	Euskaraz	Abenduaren 26ra arte	Zehazteke
Batukada tailerra	Urtarrilaren 2an	8-15	17:00-18:00h	Gaztelaniaz	Urtarrilaren 1era arte	Zehazteke

\* Ikastaro guztiak doakoak dira. Gazte Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorb., 98) eman behar da izena: tel. 944.660.353; [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) (izena, egin nahi den ikastaro/tailerra eta harremanetarako telefono bat zehaztu); edo [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria).